

Aurkeztu dute Euspot lehiaketaren 7. edizioa: 'Irudi digitala gure bizitzako harremanetan'

2017/12/13

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egindako ekitaldian, gaur, hilak 13, aurkeztu dute Euspot euskarazko spot lehiaketaren 7. edizioa. Aurtengo ediziorako aukeratutako gaia: 'Irudi digitala gure bizitzako harremanetan'. Gipuzkoako Foru Aldundia, Aretxabaletako Udala, Arteman Komunikazio eta Arizmendi Ikastolarekin batera antolatzen du Mondragon Unibertsitateak euskararen sormena bultzatzea helburu duen spot lehiaketa.

Aurtengo edizioak 2.000 euro baino gehiago egongo dira jokoan. 2018ko maiatzaren 2ra arte dago aukera 20-30 segundo arteko spotak bidaltzeko.

Aurkezpen publikoan parte hartu zuten Mikel Irizarrek (Gipuzkoako Foru Aldundia), Ane Lore Estalak (Aretxabaletako Udala), Edurne Balzategik (Arizmendi Ikastola), Arantzazu Lagunillak (Arteman Komunikazioa) eta Goio Aranak (Mondragon Unibertsitatea). Gainera, sare sozialen erabiltzaileen ordezkari bezala, ekitaldian esku hartu zuten Iban Garcia youtuberra eta Ikus-entzunezko Graduko ikasleak eta Anatxuchic Instagramerrak

Lehiaketaren oinarriak.

